



AKTEA/03

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2023-01-31)**

Batzarraren izaera:	O hikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2023-01-31 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:05
Amaiera-ordua:	08:23
Alkate-Presidentea:	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ
Batzordekideak:	PLATAS ARENAZA M. IDOYA LEIZAOLA ZULUETA MAITANE ZUMETA GARRO ALAZNE LEGARRETA ERKIAGA IBON ZUMETA GARRO KEPA
Bertaratu ez direnak:	
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 31/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 01/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/02/2023 15:41:58

DOCUMENTO: 20230762275

Datea: 01/02/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2023-01-24 TGB (02)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- 2022ko azaroaren 22ko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren aurka aurkeztutako birjarpen errekurtsua ezeztatzea.
- 4.- Kurtzio auzoa 11n kokatutako etxea berriztatzeko obra lizentzia eskualdatzeko eskaria onartzea.
- 5.- Mañu auzoa 7 poligonoko 14 eta 15 lursailetan nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioa egiteko obra lizentzia eskaria emotea onartzea.
- 6.- GOSeko arreta zuzeneko lanpostuan osasun gaitasunean begietsitako murrizketak egokitu eta langileak egindako lanaldiaren murrizketa eskaria onartzea.
- 7.- Bilboko Ibarrekolanda Institutua eta Bermeoko Udaleko "Sancti Spiritus" Zaharren Egoitzaren arteko hezkuntza lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartzea.
- 8.- Zerbitzu karten edukieraren eguneraketa onartzea.
- 9.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 10.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaidza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2023-01-10 TGB (01)

Bertaratutako batzarkideek 2023ko urtarrilaren 10eko 01/2023 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 31/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 01/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/02/2023 15:41:58

DOCUMENTO: 20230762275
Data: 01/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



3.- 2022KO AZAROAREN 22KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA AURKEZTUTAKO BIRJARPEN ERREKURTSOA EZEZTATZEA.

Xedea

Mikel Deuna kaleko 17an kokatutako eraikinaren beheko plantako lokalaren erabilera aldatu eta bertan etxebizitza erabilera jartzeko eskaria ezeztatzea erabagi eban 2022ko azaroaren 22ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabagiaren aurka aurkeztutako birjarpen errekurtsoa.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko ekainaren 29an ***686**C NAN zenbakidunak Mikel Deuna kaleko 17an kokatutako eraikinaren beheko plantako lokalaren erabilera aldatu eta bertan etxebizitza erabilera jartzeko eskaria aurkeztu eban udalean. 2022ko urriaren 19an dokumentazio osagarria aurkeztu zan.

Bigarrena: 2022ko azaroaren 22an Tokiko Gobernu Batzarrak, ***686**C NAN zenbakidunaren eskaria ezeztatzea erabagi eban.

Hirugarrena: 2023ko urtarrilaren 2an erabagi horren aurkez birjarpen errekurtsoa aurkeztu zan.

Laugarrena: 2023ko urtarrilaren 20an Urigintza Saileko teknikariak txostena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: ***686**C NAN zenbakidunaren eskaria ezeztatzeko arrazoia honako hau izan zan:

Udalak 2016ko abenduaren 1ean behin betiko onartu zuen A.26 Lurralde Areako Hirigintza Antolamendua. A.26ko antolamendu berria onartzeko HAP0aren aldaketa puntual bezala A.26 Lurralde Area antolatzen zuen dokumentua onartu zen.

Antolamendu xehatu horretan A.26 Lurralde Arean, 161 m² ekipamendu pribatu izan behar dela xedatzen da.

Gaur egun, aipatutako lokal horren erabilera, (N1808142Y) zenbaki finkodun lokalaren erabilera ekipamendu pribatu horri lotuta dago, ezin da etxebizitza erabilera bertan ezarri, horrek, Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 Legeak ezarritako gutxieneko hirigintza estandarrak ez betetzea ekarriko lukeelako.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 31/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 01/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/02/2023 15:41:58

DOCUMENTO: 20230762275
Data: 01/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Bigarrena: ***686**C NAN zenbakidunak aurkeztutako birjarpen errekurtsioan, honako hau esaten da:

1. Sobre el incumplimiento del estándar de equipamiento privado que el arquitecto fija en 155,50 m² de equipamiento privado mínimo conforme a la Ley 2/2002 LSU aunque atendiendo a la ordenación pormenorizada de la modificación del PGOU UE 26-1 queda definitivamente fijado en 161,00 m². El incumplimiento no se produce dado que existen tres locales comerciales en la unidad que tiene cuatro portales. En este momento existe un local comercial de 67,69 m² como taller de costura en el portal 17 y en el proyecto que desarrollará la parcela vacante se han reservado en el portal 13, unos 94,00 m² para ejecutar un comercio. Siendo esto así no se está produciendo ningún incumplimiento de los estándares por lo que el uso es perfectamente viable a pesar del informe contrario del técnico municipal que no ha tenido en cuenta la existencia del tercer local aún no ejecutado en los números 11 y 13 de Mikel Deuna Bidea. Es decir, considerando todos los locales de la unidad, la implantación del uso comercial de vivienda turística es viable.

Honen inguruan honako hau esan beharra dago:

A.26 Lurralde Areako Hirigintza Antolamenduan honako hau jasotzen da:

Parcela de resultado	Edificabilidad local comercial
Parcela P1	141,00
Parcela P2	20,00
TOTALES	161,00


Beraz, P2 partzelan eraikiko dan erakinaren proiektuak, onartuta dagoan antolamendu xehatua bete beharko dau.

2. Es incierto que el uso de vivienda turística no sea un negocio como se afirma en la resolución. Este uso exige darse de alta en el epígrafe correspondiente a las actividades de la DFB y abonar los impuestos y costes correspondientes. La finalidad del negocio es rentabilizar un espacio que en este momento carece de actividad. De hecho, se ha entregado la declaración responsable de actividad. No existe ninguna ordenanza ni norma sectorial que impida este uso comercial y los impuestos y obligaciones relacionadas con dicha actividad serán satisfechos. Esta razón se esgrime para indicar que no puede ejecutarse la entreplanta permitida en todos los locales comerciales de más de 4,80 m de altura libre. Esta interpretación queda resuelta en el punto anterior. El local puede tener el uso de vivienda turística y este uso es comercial.

Bermeoko Plan Orokorrak ez dau etxebizitza turistikoaren erabilera xedatzen. Lokal horretan egin nahi dana etxebizitza bat da, nahiz eta gero etxebizitza hori etxebizitza turistiko lez erabili.

Proiektuan planteatzen dan lez, ekipamendu pribatuari etxebizitza erabilera emon nahi jako, eta hori ezinezkoa da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritako gutxieneko hirigintza estandarrak ez betetzea ekarriko lukeelako.

Hirugarrena: Administrazio Prozedura arautzen dauan 39/2015 Legeko 123 eta 124



artikuluei jarraituz, birjarpen errekurtsua erabagia eman dauan organo beraren aurrean jarri behar da, beraz, birjarpen errekurtsu hau erabagitzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

BAKARRA: Mikel Deuna kaleko 17an kokatutako eraikinaren beheko plantako lokalaren erabilera aldatu eta bertan etxebizitza erabilera jartzeko eskaria ezeztatzea erabagi eban 2022ko azaroaren 22ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabagiaren aurka ***686**C NAN zenbakidunak aurkeztutako birjarpen errekurtsua ezeztatzea argudioetan azaldutako arrazoiengatik.

4.- KURTZIO AUZOA 11N KOKATUTAKO ETXEA BERRIZTATZEKO OBRA LIZENTZIA ESKUALDATZEKO ESKARIA ONARTZEA.

Xedea

Kurtzio auzoa 11n kokatutako etxea berriztatzeko obra lizentzia eskualdatzeko eskaria.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 21eko 2022/4783 Alkatetza Dekreu bidez erabagi zan, ***354**J NAN zenbakidunari, obra lizentzia emotea Kurtzio auzoa 11n kokatutako etxea berriztatzeko.

Bigarrena: 2023ko urtarrilaren 24an ***354**J NAN zenbakidunaren eta ***529**K NAN zenbakidunaren eskaria jaso zan, obra lizentziaren eskualdaketa eskatuz.

Hirugarrena: 2023ko urtarrilaren 24an Urigintza Saileko teknikariak txostena eta erabagi proposamena egin ebazan.

Argudioak

Bakarra: Hirigintza-lizentzia hori indarrean dago gaur egun, iraungitzeko legez aurreikusitako epea igaro ez delako, 2/2006 Legearen 216. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Toki-korporazioen zerbitzuen erregelamenduaren 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, «*Las licencias relativas a las condiciones de una obra, instalación o servicio serán transmisibles, pero el antiguo y nuevo constructor o empresario deberán comunicarlo por escrito a la Corporación, sin lo cual quedarán ambos sujetos a todas las responsabilidades que se deriven para el*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 31/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 01/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/02/2023 15:41:58

DOCUMENTO: 20230762275

Fecha: 01/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



titular».

Azkenik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 208.2. artikulua ere antzeko ildotik doa. Artikulu horren arabera, hirigintza-lizentziak eskualdatu ahal izango dira, eta eskualdaketa gauzatutzat joko da, kontrakoa itundu ezean, dagokion lurzoru-azalerarekin edo eraikuntza edo eraikuntzarekin batera. Hala ere, eskualdatzaileak eta eskuratzzaileak idatziz jakinarazi beharko diote eskualdaketa udalari, eta, hala egin ezean, titularrari dagozkion erantzukizun guztien mende geratuko dira biak: *“Hirigintzako lizentziak eskualdatu egin ahal izango dira. Eskualdaketa egindakotzat joko da -kontrako erabakiren bat hartzen ez bada behintzat-lurrazala edo hari dagokion etxea edo eraikina eskualdatzearekin batera. Halere, bai eskualdatzen duenak, bai jasotzaileak, eskualdatzearen berri eman behar diote idatziz udalari. Hori egin ezean, titularrarentzat sor daitezkeen erantzukizunei lotuta egongo dira biak.”*

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: ***354**J NAN zenbakidunaren eta ***529**K NAN zenbakidunaren eskaria baieztea.

BIGARRENA: Kurtzio auzoa 11n kokatutako etxea berriztatzeko obra lizentzia ***529**K NAN zenbakidunaren izenean ipintea.

HIRUGARRENA: Errenta Sailari erabagi honen barri emotea.

5.- MAÑU AUZOA 7 POLIGONOKO 14 ETA 15 LURSAILETAN NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO INSTALAZIOA EGITEKO OBRA LIZENTZIA ESKARIA EMOTEA ONARTZEA.

Idazkariak kontrako irizpena eman du arkitektoaren txostenarekin bat, instalazio berria ez litzateke egokituko HAPOak bere ordenantzetako 2.3.25 artikuluan adierazten duen estalkiaren bi isurialdeko baldintzara. Izan ere, estalkiak ez luke %30 eta %40 arteko malda izatearen baldintza betetzen.

Xedea

Mañu auzoa 7 poligonoko 14 eta 15 lursailetan nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioa egiteko obra lizentzia eskaria.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko irailaren 29an ***334**Y NAN zenbakidunak obra baimena eskatzen du Mañu auzoa 7 poligonoko 14 eta 15 lursailetan nekazaritza eta



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 31/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 01/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/02/2023 15:41:58

DOCUMENTO: 20230762275

Fecha: 01/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0



abeltzaintzako instalazioa jartzeko. 2022ko azaroaren 16an ***334**Y NAN zenbakidunak dokumentazio osagarria aurkezten du.

Bigarrena: 2022ko azaroaren 18an udal arkitektoak txostena egin eban.

Hirugarrena: 2022ko azaroaren 23an eskatutako fidantzak ipini dira udal Diruzaintzan.

Laugarrena: 2023ko urtarrilaren 20an Urigintza Saileko teknikariak txostena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen dan lez, Mañua auzoa 7 poligonoko 14 eta 15 lursailen jaubearen eskaria bat dator be hirigintza araudiarekin estalkian izan ezik, ez dalako bi isurialdekoa eta ondorioz, ez dau %30 eta % 40 arteko malda betetzen.

Nahiz eta proiektuak puntu horretan ez bete HAPOak xedatzen duena, udal arkitektoak aipatutakoa kontutan hartuta, lizentzia emotea proposatzen da:

“Proiektuan azaltzen da, nekazaritza eta abeltzaintza instalazioaren helburua dela, ahalik eta inpaktu txikiena izatea inguruko giro baldintzetan eta instalazio mota honek, kolore eta forma aldetik, arauan baimentzen den pabiloi batek baino inpaktu txikiagoa izango luke.

Bestalde, instalazioaren muntaketa egitura metaliko batean eta telazko toldo batean oinarritzen da, berotegien muntaketak duen antzeko sistema. Sistema erraz desmuntagarria litzateke.

Hasierako proposamenean instalazioaren perimetroan metro bateko altuerako hormigoizko horma eraikitzea planteatzen zen, zokalo moduan.

2022ko azaroaren 16an aurkeztutako planoan adierazten da, zokalo hori ez dela eraikiko, soilik, instalazioari oinarria emango liokeen hormigoizko zolata eraikiko dela. Hormigoizko horma hori kendu ondoren, proposamen berriak zolata bakarrik eraikitzea planteatzen du, bere gainean muntaketa gauzatzeko. Horrela, instalazioaren izaera desmuntagarri hori azpimarratzen da.

Sistema honetan ez da betetzen estalkia bi isurialdekoa izatea eta isurialdeek %30 eta %40 arteko malda izatea.

Hala, instalazio berria ez litzateke egokituko HAPOak bere ordenantzetako 2.3.25 artikuluan adierazten duen estalkiaren bi isurialdeko baldintza horretara. Eta estalkiak ez luke %30 eta %40 arteko malda izatearen baldintza beteko.



Sinadurea eta data



Beraz, jakinik ez dela instalazio berria araudira egokitzen, Tokiko Gobernu Batzarraren esku geratzen da nekazaritza-abeltzaintza instalazioa baimentzea, kontuan izanaz:

- A priori, instalazio horren inpaktua bisuala edota inguruko giro baldintzetan izan lezakeena, araudira egokituko litzatekeen blokeko pabiloi batek sortuko lukeena baino txikiagoa izango litzateke.
- Instalazioaren bolumena, araudiak baimenduko lukeen pabiloi baten bolumena baino txikiagoa litzateke.
- Berotegien antzeko sistema erabiliz eraikiko litzateke. Metalezko arkuak eta kolore berdeko toldo bat gainean. Instalazioak izaera desmuntagarria izango luke, desmuntatzeko, toldoa kendu eta egitura metalikoa desmuntatzea baino ez litzateke izango.”

Bigarrena: Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 eta 210 artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen dauan ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoan araudiarekin bat dator.

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki-administrazioen Oinarriak arautzen dauan 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, obra lizentziak emoteko eskumena Alkatearena da, baina eskumen hori 2022ko ekainaren 16ko 2037. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Nahiz eta instalazioaren estalkiak ez bete HAPOak xedatutakoa, ikusirik instalazioaren inpaktu bisuala eta bolumena araudiak baimenduko lukeena baino txikiagoa dala eta instalazioak izaera desmuntagarria izango lukeela, Mañu auzoa 7 poligonoko 14 eta 15 lursailen jaubeari, ***334**Y NAN zenbakidunari, eskatutako obra lizentzia emotea lursail horietan nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak egiteko, aurkeztutako proiektuaren arabera.

BIGARRENA: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honeek betetzera baldintzatuko da:

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari



Sinadurea eta data



dagokion aurrekontua Urigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa, obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Instalazioa aurkeztutako proiektuan eta 2022ko azaroaren 16an aurkeztutako dokumentazio osagarrian oinarrituko da, aldaketarik balego, baimena eskatu beharko da udalak oniritzia eman diezaion.
- Inguruko lursailak eta bidera 10 metroko distantzia errespetatu beharko da.
- Uren polizia eremuan esku hartuko balitz, baimenaren titularrak URA ur agentziari baimena eskatu beharko dio esku hartze horri buruzkoa.
- Putzu septikoa jarri nahi izanez gero, baimena eskatu beharko da.
- Instalazioak sortu ziren unean zuten erabilerarako bakarrik erabili ahal izango dira, erabilera aldatu ahal izateko, dagokion lizentzia izapidetu beharko da.
- Instalazio horrek ezin izango du inoiz etxebizitza erabilerarik izan, eta ezin izango du izan etxebizitza erabilerari dagokion instalaziorik, adibidez, tximiniak, antenak, etab.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Baldintza honek gain, obrea egiteko lizentzia eraginkorra izateko, lizentzia honeri erantsita doazan baldintza orokorrak bete beharko dira.

O hartarazoten da baimen hau ez dala eraginkorra izango, baldintza guztiak betetzen ez diren bitartean.

HIRUGARRENA: Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendaritzak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 31/01/2023
 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 01/02/2023
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/02/2023 15:41:58

DOCUMENTO: 20230762275

Data: 01/02/2023
 Lekua: Bermeon
 Erregistro unidaidea:
 Erregistro nagusia



besteak beste ageriko den, **lanek, indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.**

- O bra amaitzean obra amaierako dokumentazioarekin batera, egindako lanen argazkiak aurkeztu beharko dira.
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, O bra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta -materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeke.

1.-O bra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeke, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta - materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.- Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelana tarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispén-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena. –

- O bra amaitzean, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerari lotutako hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. Su itzalgailua abian jarri izanaren ziurtagiria.

2. Tekniko eskudunaren ziurtagiria adierazten duena jarduera indarrean dagoen araudira egokitzen dela.

LAUGARRENA: Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 31/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 01/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/02/2023 15:41:58

DOCUMENTO: 20230762275

Datea: 01/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



dira izango. Baimendutako obretan egin nahi dan aldaketa oro udalari jakinarazi beharko jake, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gaintzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagokiozan administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko dau.

BOSGARRENA: Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoaren eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenentarako eta egiaztapenentarako sarbidea eman beharko jake, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

SEIGARRENA: Obrearen aurrekontua 37.611,68 €koa da. Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Era berean, obrak egiteko epea hiru hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badagoz, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko dauka, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badau behintzat.

ZAZPIGARRENA: Obrak egiten diran bitartean, legez eskatu daitekeezan segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dagozan pertsonen kalterik ez egiteko.

ZORTZIGARRENA: Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitekeezan kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

BEDERATZIGARRENA: Obretako hesi, aldamiu eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean.

HAMARGARRENA: Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun eksklusibopean.

HAMAIKAGARRENA: Baimen honek eragina izango dau udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez dauz aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

HAMABIGARRENA: Errenta Sailari erabaki hau igortzea, dagokizan tasak eta tributuek likidatzeko.

HAMAHIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 31/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 01/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/02/2023 15:41:58

DOCUMENTO: 20230762275

Fecha: 01/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0



errekurtsoak adieraziz.

OBRA HANDIETAN BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK

Obra lizentzia emoten dauen erabagian agertzen diran baldintzakak batera, beste baldintza honeek be, bete beharko dira:

1.- Dagokion arkitektoak idatzi eta jagokon alkargoak behar dan moduan oneretxia emonda aurkeztuko da proiektu teknikoa, eta, bai honi eta bai emoten dan lizentziari be zehatz lotuta egingo dira obrak.

2.- Berau kokaturik dagoan kaleko lerrokadura ofizialetara egokituko da eraikuntzea. Udal arkitektoak azalduko dau horreek lerrokadurak zeintzuk diran.

3.- Obra lizentziaren kopia kanpotik ikusteko moduko leku baten egon beharko da lanak egiten diren bitartean, esaterako kolarreko kristalean, atarian, auzoko iragarki taulan...

4.- Lizentzia eskatu eta lortu ostean, eskatzailea honako honeetara egongo da behartuta:

- a) Urigintza arloko arauak eta ezarritako baldintzak oso-osorik betetera. Honeen baldintzen artean, funtsezkoa izango da, aplikagarria dan kasuetan, jarritako ildo ofizialetara zehatz atxikitzea obrea.
- b) Ordenantza fiskalek ezarten dabezan zergak ordaintzera. Eskaria egiten dan momentutik onartzen da betebeharrak betetera.
- c) Lizentzia dala-eta, sortzen diran gastu guztiak ordaintzera, bardin, bide publikoan, harri-zoletan, pasealekuetan, espaloietan, urbideetan, faroletan eta abarrean be; orokorrean, jabari publikoko objektu narriagarrietan sortu leikezan kalteak ordaintzera.
- d) Bai obrea burutzen dagoan bitartean, bai honen amaieran be, udal zerbitzuei ikuskapena egiteko aukerea emotera. Ezarritako baldintzak bete dirala frogatuko dabe honeek ikuskapenak.
- e) Lanek irauten daben bitartean gertatu leikezan intzidentzia guztien erantzulea izatera.
- f) Indarrean dagoan legediak esijitutako generako betebeharrak betetera.
- g) Ur kontagailua ipini beharko da, obrea burutzen dan bitartean kontsumitzen dan ura neurtzeko. Zuinketa Aktea izenpetu aurretik jarri beharko da kontagailu hori, Ur Hornidurea eta Ur Zerbitzuaren Kudeaketarako Erregelamenduaren 78. artikulua xedatutakoa betez. Kontagailua ipinteko beharrezkoa dan eskaria egin beharko da udaletxe honetan, erregelamendu horren 5. artikulua xedatzen dauenaren arabera.
- h) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 19an argitaratu zan Bermeoko Udaleko Zaratei eta dardarei buruzko Udal Ordenantzea beteko da.
- i) Hormigoi kamioiak ezin izango dira garbitu obran bertan, kamioiak garbitzean sortzen dan zementuzko karesnedun ura kainu-zuloetara joaten dalako eta kainu-zuloak itxi egiten diralako.
- j) Udalak obrea hartu orduko Udal Zerbitzuek kainu-zuloak ikuskatu egingo dabez, eta itxita egon ezkerro, esleipendunak garbitu egin beharko daz, beti be udalak obrea hartu baino lehenago.
- k) Zuinketa aktan kalearen egoera zehaztuko da (galtzada-harriak eta espaloia), beharrezkoa bada, bizigarritasuna emon baino lehen konpondu ahal izateko.

5.- Horretarako legez baimenduta dagoan pertsona baten zuzendaritza fakultatibopean burutuko dira

12



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 31/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 01/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/02/2023 15:41:58

DOCUMENTO: 20230762275
Data: 01/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0



obrak; zuzendari fakultatibo horrek obran jarduteari izten badeutso, hiru egunen barruan eta jagokan alkargo ofizialak onetsitako ofizio bidez, obren sekzinoari emongo deutso horren barri. Jabeak, orduan, zuzendari fakultatibo barria izendatuko dau eta sekzinoari idatziz jakinarazo enkargu-orri egokia eta oneretxia emondakoan. Obrearen zuzendari fakultatiboak uko egin eta hiru egun igaro eta gero, izapide hori oraindino bete ez badau, O bra Sekzinoak lanen jarraipena etengo dau formalidade hori bete arte.

6.- O break irauten dauen bitartean proiektuan aldaketarik sartzea beharrezkoa bada, aurretik obra printzipalarentzat egin dan moduan, jagokan baimena eskatuko dau. Proiektua aurkeztu zanean eskatu bada edo egindako kitapenarena baino diru-kopuru handiagoa izateko arrazoirik eragiten ez bada, ez da sortuko eskubiderik. Holan izan ezean, diferentzia bakarrik ordainduko da.

7.- Eskatzaileak udaleko funtzionarioen esku itziko dauz planoen aleak onartuta eta zigilua emonda.

8.- Berehala erabiliko ez diran hutsune guztiak itxi egin beharko dira. Itxierea itxurosoa izango da eta ez da onartuko barrualdea ikusteko modurik izatea, ezta leundu eta pintatu bako trenkadarik, oholtzarik edo antzeko materialik be.

9.- Hasitako obrak ezin izango dira itzi amaitu barik. Hori gertatzen bada, udalak beharrezkoak diran xedapenak aginduko dauz. Lanak amaitzea agindu ahal izango dau, orubearen eta eraikinaren kargura.

10.-Obrak amaitu eta gero, jabeak jakinaren ganean ipiniko dau udala hamabost eguneko epe barruan. Jakinarazpen honegaz batera, obrea, onartutako proiektuaren arabera eginda dagoala frogatuko dauen obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dau.

11.- Etxebizitzak okupatu aurretik, Alkatetzeari eskatuko jako bizigarritasun-zedulea. Udal aginteak ez dau baimenduko altzariak etxe-aldatzerik, ezta establezimendua irekiterik be, aurreko esan-multzotan ezarri dan moduan, emondako eraikuntza-lizentziaren baldintzetara lotuta egin dirala obrak egiaztatzen ez bada.

Era berean, solairu bakotxari ur-hornidurea mozten ez jakon arte ez jako emongo lizentziarik. Geroko erabiltzaileek formalizatuko dabe udaletxeko bulegoetan ur zerbitzuan abonadua izateko inskripzioa. Kontratistek izango dau solairu bakotxean ur-hodia ebagiteko baldintzea ez betetearen erantzukizuna.

12.- O bra lizentzia, kasu honeetan iraugiko da, ordaindutakoa itzultzeko eskubide barik:

- Udalak ezarritako epe barruan obrak hasi ez diranean.
- O brak hasi eta gero, sei hilebetetan etenda geratu diranean.
- Horretarako ezarri dan epe zehatzean, edo, egon leitekeen luzapenean obrak amaitu ez diranean.

Epeak amaitu aurretik, arrazoitutako geldiarazpena edo berandutzea jakinarazo ezkerro udalari, edo ezinbestekoagaitik izan dala frogatu ezkerro, ez da kontuan hartuko epemugarik.

13.- Jabego eskubidea kenduta eta hirugarren pertsonen eskubideak gordeta emon dala baimena ulertuko da, eta onuradunak ezin izango dau erabili bere jardunean izandako erantzukizun zibila edo penala baztertzeko zein gitxitzeko.

14.- Lizentzia honetan aurreikusten ez dan guztirako, herriko arau subsidiarioek eta urigintzako ordenantzek xedatutakora egongo gara.

15.- Euskerearen Normalizaziorako Udal Ordenantzeak dinoana bete beharko da, era honetara: Obrearen seinaleak eta moeta guztietako oharra, segurtasun arauen panelak...euskeraz idatzita egongo dira. Euskeraz eta gaztelaniaz idatzi ezkerro, euskerazko testua bi aldiz handiagoa izango da.

Obrea egingo daben enpresek obran publizidaderik egitekotan, euskeraz egingo dabe; euskeraz eta gaztelaniaz egitekotan, lehenetasun osoa emongo jako euskereari.

16.- Beste baldintza batzuk:

- Eraikinaren barruan ipiniko da putzu septikoa eta 3.3. erregistro-tapea eukiko dau. Erkidegoaren jabetzako tokietan (kolarrean edo atarian, garajea, arrapalan eta abarrean) jarriko da eta debekatuta dago loian ipintea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000BA1A300R4X1B6I2S9T0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 31/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 01/02/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/02/2023 15:41:58

DOCUMENTO: 20230762275
Datea: 01/02/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



